



Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza graduako ikasleen proiektua gauzatu du Udalak saltokiekin elkarlanean eta tokiko merkataritzan erosteko pizgarria izatea du helburu

Moda desfilearen bukaeran udalerriko establezimenduetan erosteko txkeak zozketatuko dira

Beasaingo Udalak udalerriko merkataritza eta zerbitzu sektorea bultzatzeko konpromisoari lotuta jarraitzen du. Eguberrien atarian, udalerrian erosketak eta kontsumoa bultzatzeko ekimenak abian jartzea du eginkizun tokiko ekonomia zirkularra aktibatzea funtsezkoa baita Beasain herri bizia eta dinamikoa izaten jarraitzeko eguneroko ohituretan eta bizitzan. Kasu honetan, Merkataritza-sarea indartzeko sentiberatze kanpainen izan dezaketen eraginaz haratago, oraingoan dendetako produktuak modu ikusgarrian erakusteko moda desfilea antolatu du udalak merkatariekin elkarlanean.

Idea honen proposamena baina, Arrasateko LEIN (Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza) graduako ikasle talde batek aurkeztua izan da. Udalak bultzatu eta babestuta, ekimena ikasle taldeak antolatu eta aurrera eramane du herriko saltokiekin lankidetzan.

Produktuak ezagutaraztea

Moda desfilea azaroaren 11n arratsaldeko zazpitan Gernika pasealekuko frontoian egingo da. Bertan, herriko 12 saltokik hartuko dute parte

eta ekintza honen helburua Beasaingo establezimenduak eta bertan saltzen dituzten produktuak ezagutaraztea da. Parte hartuko duten saltokiak hauek dira: Truk, Xalo, Mirari, Vicuña, Anitz, Cortés, Ouka, Arnedoko txokoa, Andreak, Urrezko haria, Imaz, Khaos eta kea.

Egungo modarekin zerikusia duten jantziak, osagarriak, oinetakoak eta optikako produktuak erakutsiko dira desfilean. Arropari dagokionez denda baikoitzak bost arropa-multzo erakutsiko ditu. Hauek erakusteko modeloen artean hainbat herritar izango dira.

Erosketa txeeen zozketa

Moda desfilearen bukaeran udalerriko establezimenduetan erosteko 50€-ko 10 txee eta 100€-ko 3 txee zozketatuko dira.

Zozketan parte hartu nahi duenak herriko establezimenduetan egongo diren kutxetan erosketa tiketa utzi behar dute izen deiturak eta telefono zenbakia jarrita eta txeeen zozketa lehen aipatu bezala moda desfilearen ondoren egingo da.

